

Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko uztailak 3 / II. urtea / 31. zenbakia

Metropoli Forala



FELIPE RIUS

Malditismoaren garaiak betirako joanak zirela zirudienean, modan jarri ari omen da berriro ere, eta galtzaileak egunkarietako orrialdeak betetzen hasi dira yuppies heriotza iragarritz. Errealitatea ziklikoa dela baieztatzen digute industria kulturalaren gidariek eta hala ere ez dugu behin ere asmaten zer etorriko den ondoren, argi eta garbi frogatu dugu ez dugula adibinoak izateko gaitasunik eta Ekialdeko errejimenen suntsidurak ustekabeen harrapatu gintuen bezalaxe, Historiak gehiagotan utziko gaitu harriturik. Horregatik, garai batean gogo haundiz egiten genituen interpretazio traszendentalak bertan behera utzi ditugu eta gure etorkizunaren muga gustatzen zaigun neska hura konkistatuko dugun egunean ezarri dugu.

Batzutan desioak eta erreallitatea nahasten ditugu eta gure belaunaldiak galdu zuen 68ko maiatzarekin amets egiten dugun bitartean, telebistako irudiek erabat abandonatzen ez gaituen pesimismoa itzultzen digute. Dylan, Jim Morrison, Johnny Thunders eta beste askoren diskei hutsa kentzen diegu —Tom Waits-enak ez ditugu inoiz gorde—, baina ez ditugu jartzen, Sony black trinitonetik ateratzen den ametrailadoreen hotsak kitarrak eta baterien erritmoak estaltzen bait ditu. Malditoak itzultzen ari dira, mitoen posterrak aldatzen ditugu pareetan eta poza apur bat nabaritzen da giroan, baina badakigu alde berean arriskutsua dela. Ispiluaren aurrean jartzen garenean galtzaile aurpegia dugula konturatzen gara eta horrek ez luke problema bat izan behar arazo bat ez bagenu: ez dugu garaipena behin ere ezagutu eta ezin dugu konparaziorik egin. Malditoak itzultzen badira modan egongo gara behintzat, nahiz eta koloretako paperetan ez atera.

Ebroko Konfederazioaren Egitasmo Hidrologikoa informazio publikora atera du Espainiako Ministeritzak duela hilabete, beste arreoakoekin batera. Nafarroari dagokionez, aurretik iragarrita zeuden lanak berretsi ditu egitasmo honek, eta garrantzitsuena, Itoizko urtegia, Nafarroako ubidea eta Esako urtegia handitzekoak. Egitasmoak, baina, Nafarroako mugak gaintzen ditu, uraren kontrolaren garrantzia alde guztietatik nabarmentzen den garai honetan. Hurrengo urteetan boterean eta herrien aberastasunean funtsezkoa izango baita da urre gardena.



**Ura,
aberastasun
berria**

Barnean

HERRI KIROLA



Nafarroako selekzioa
Bartzelonako
Olinpiadetan lehian/III

POESIA



Jabier Irazoki
lesakarrak bere azken
lana aurkeztu du/VIII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Luziano Martinez pintorearen erakusketa Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak duen Aretoan, Conde Rodezno kalean, ikus daiteke, uztailearen 5a arte. Jai egunetan goizetik bakarrik ikusteko aukera dago, hamabè t'erdietatik ordubietara, eta beste egunetan arratsaldeaz, 19.30etatik bederatzietara.

Jordi Roses pintorearen erakusketa Tuterako La Calle arte galerian dago ikusgai, datorren uztailearen 11a arte. Artista honen lana ikusteko arratsaldeko zazpietatik bederatzietara dago zabalik Herrerias kaleko aretoa.

'Nobelen Sanferminak' izeneko erakusketa ikusgai dago Zapateria kaleko arte aretoan, Hiritar Eragintza aretoan. Jose Luis Nobel argazkilariaren 20 urteko lana dago paratuta, datorren uztailearen 15a arte.

Willy Ronis artistaren lanen erakusketa ikusgai dago Iruñean datorren uztailearen 19a arte. 'Mis años Ochenta' izeneko erakusketa Aurrezki Kutxa Munizipalak duen aretoan dago. Garzia Castañon kalean.

ANTZERKIA



'El tricicle' antzerki talde ospetsuaren

ERRAN DUTE

Iruñeko autobus geltokirako proiektuan dudamuda garrantzak ditugu.

Carmelo Loperena
Arkitektoen Elkargoaren presidentea

«Nik ez ezik, Bernard eta Delgadok ere Tourra irabazteko aukerak dituzte».

Miguel Indurain
Txirrindularia

«Ni ez naiz izango Riaurriaren aldeko mahaian».

Santiago Cervera
Iruñeko ordezkari zinegotzia

«Zeharo harrituta gaude Iribarreren hanka egitearekin».

Alfredo Rueda
Gazte Kontseiluaren presidentea

Argarekin batera


Zubiriko inguru hau alde biko ibilbidea da, joana eta itzulera leku berberatik egingo bait da. Ibilbide osoak hogeitamar kilometroko dauka, eta aproposa da txirindulaz egiteko, ez baita bi-dean kotxe trafiko sobera.

Halaber, zoladura oso ongi dago eta soilik Zabaldikako aldapaz igo beharra dago. Ibilbidean paisai oso ezberdinak aurkitzen ahal ditugu. Zubirira heltzerakoan, baina, bertako lantegiaren ustekabearekin egin dezakegu topo.

Potasasetik ateratzen den kutsadura eta hautsak inguruko herrietako etxeei kolore berezi eta desatsegina ematen diete, baina horrek ez du apurtzen, ez osorik, ibilbidea.

Zubirin, egun oso desitxurata bada ere, Arga ibaiaren gaineko zubi gotikoa dago, eta orain dela gutxi arte, magia eta errito bereziak egiten ziren bere inguruan. Santa Qiteriaren hondakinak bertan zeudelakoan zegoen jendea.

Halaber, Zabaldikan, harrizko



beste zubi ederra dago, aspaldian erromesek erabilitakoa. Irozitik zetozenak hemendik igarotzen ziren, eta ondoren, Aletatik, Atarrabiaraino heltzen ziren.

Arletan jauregia dago, eta

Ollokin, herriaren sarreran bertan, lehengo jauregia dago. 1500an Juan Ollokirena zen. Honen emaztea, Margarita Jasokoa, San Frantzisko Xabierren izeba zen.

tsua arituko da gaur Iruñean, arratsaldeko zortzietan eta gabeko hamar t'erdietako saioetan, Udaletxeak antolatutak. 'Slastic' antzezlanaren eskainiko dute, hiriburuko Gaiarre Antzokian. Joan Gracia, Paco Mir eta Carles Sans, 'El Tricicle' taldea osatzen dutenek, aurtengo urte olinpikoa dela eta, kirolaren mundua parodiatzeko dute bere obran.

Ilargi eta Trokolo antzerki taldeak herriz herri ibiliko dira ekainaren 27tik iraila bitarte. Luzaiden hasi eta Mañerun amaituko den herri biran 'A zer irriak' eta 'Zalapartaka' lanak antzetzuko dira, euskaraz zein gaztelez. Antzerki lanen atzetik, ilunabarrean, zine emanaldiak eskainiko dira.

MUSIKA



Tijuana In Blue. Su Ta Gar eta 'El Drogas' Barricada taldeko abeslaria arituko dira bihar, uztailearen 4, Vianako La Albergueria futbol zelaian, Nafarroa Oinezko ekitaldien barruan. Ekintza honen helburua, antolatzaileen esanetan, San Fermin aurreko jaialdi 'martxoso' bat antolatzea da, bai Iruñea eta bai inguruko

ASTEKO PERTSONAIAK

Manuel Turrillas



Musikaria

Mikel Santamaria



Eskubaloia jokalaria

Alfredo Jaime



Iruñeko alkatea

Konposagile famatuak Napardi Iruñeko elkartearen 'Gallico de oro' izeneko saria jasoko du aurtengoa, herri musika eta bereziki sanferminei buruzko musikan egindako lana dela eta. Turrillas maisua peña askotako himnoen egilea da, eta baita aurora askorenak eta Osasunako himnoarena ere. Uztailearen 9an, osteguna, Napardiko bazkideen laguntzaz, zezen barrukiak hartuko ditu hamaiketako gisa Turrillasek, ondoren apartadara eramango dute, eta elkartean bertan bazkalduko du. Konposagilearekin batera, Iruñeko Orfeoia ere omenduko du Napardik.

San Antonio-Mepamsako jokalariren adierazpenek ekaitza baten eragina izan dute Iruñeko eskubaloia taldean, eta taldearen buruzagiek bere kontrako kereila iragarri zuten asteartean. Santamariak gogor kritikatu zuen joan den astean Zupo Ekisoin entrenatzailea, eta berari leporatu zion taldearen barruan zegoen giro txarra. Gainontzeko jokalariek, bestalde, ez zituzten hasiera batean Mikelen adierazpenak komentatu nahi izan, baina baten batek «postua jokoan zuela» azaldu zuen. Zerbait ustela, beraz, eskubaloia taldean, ezkutatzeke nahiak gorabehera.

Askotan kritikatu bere jarrera gogorak eta harro samarrak direla eta, aste honetan elkarrizketarako nahia erakutsi du Iruñeko alkateak, Riaurriaren arazoaren inguruan. Hasieran ez ateratzearen alde zen Jaime, baina peñetako batzordeak egindako proposamena, mahaia biltzea, alegia, azkenean onartu zuen. Bere onspen ofiziala eman zion bilerari, eta aurreko adierazpenak ukatu zituen, aurtengoa ere ekitaldian parte hartu nahi zuela esan bait zuen. Bere taldean, baina, ez omen dira iritzi berberkoak, eta horrek pasatako garaia gogorarazten dizkigute...

jendearen motorrak berotzeko. Sarrerak 1.000 pezeta balio dute aldez aurretik erosiz gero, eta 1.200 takilan erostean. Antolatzaleek adierazi zuten, sarpresaren bat ere izango da kontzertuan, baina, noski, ez zuten ezer gehiago esan nahi izan.

Jesse James Band eta Los del Rayo musika talde altsasuarrak arituko dira gaur, uztailearen 3, bertako Domingo Lunbier eskolatan. Herriko bi talde hauek arrakasta handia dute bere sortzerian. Gaurko kontzertua gabeko 10,30etan izango da.

Anticuerpos taldea arituko da bihar, uztailearen 4, gabeko 10,30etan Sartaguda herrian. Musika talde honen lehenengo elepea aurkeztuko dute biharko kontzertuan, ilusio handiarekin grabatu duten diska, hain zuzen.

ZINEMA



'Bananas' izeneko pelikula Burgin egonen da ikusgai bihar larunbata, hilak 4, Nafarroako Gobernuak antolatutako 'Correpueblos' izeneko ekitaldiaren barruan. Igandean, hilak 5, Donamarian botako dute 'Mi novia es una extraterrestre' ('Nere anregiaia extraterrestre bat da') izeneko pelikula, ziklo beraren barruan. Proiektzioak kanpoan egingo dira, herriko plazan edo, 20 metro karratutako pantailatan, iluntze partean.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratiaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenan zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenan zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Herri Kirolak Barcelonan

MATTIN KAPITANSORO / IRUNEA

Hogeitazortzi herri kirolari izango dira Barcelonako Olinpiadetan parte hartuko duten lehendabiziko nafarrak. Bihar, larunbata, Herri Kirolen Euskal Herriko Txapelketa egingo bait da bertan, Parque CAN Dragon, Olinpiada Kulturaletan barruan antolatu den ekitaldia dela eta. Gaur bertan ziren irtetekoak kirolariak, eta helburua herri kirola zabaltzea bada ere, iaz lortutako bostgarren postua gainditzeko asmotan zen espedizioa.

Herri Kirolentzat funtsezko eguna izango da biharkoa, lehendabiziz aterako bait da, modu ofizialean, Euskal Herriatik kanpo. Noizbehinka agerraldi eta erakustaldiak egin izan dira beste herrietan, baina Euskal Herriko Txapelketa, benetako lehian eta figura gehienekin ez zen orain arte egin. Gainera, urrats garrantzitsua izango da kirola goitik behera aldatu nahi dutenendako, erakustoki aparta bait dira Olinpiadetakoko ekintza guztiak, alde askotako partaidekin.

Olinpiada Kultural honek gaur bertan izango du hasiera, eta igande bitartean Estatu espainiarreko lurralde guztietako kirolariak arituko dira, norberen espezialitatekin. Euskal Herrikoak bost taldetan banatuko dira: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroa, bakoitza hogeitazortzina kirolariek, eta bederatzi modalitateetan: aizkora, txingak, harria, orga, ingude, lasto altxaketa, trontza, sakuak eta sokatira.

Euskal Herriko txapelketa hauek duela sei urte hasi ziren, eta hasieran Iparraldeko taldeak mail aparta lortu bazuen ere, urteren poderioz Bizkaia eta Gipuzkoakoek erakutsi dute euren nagusitasuna. Nafarroa, iaz egindako txapelketan, bostgarrena gelditu zen, baina aurten hobekixe prestatuta, postu hori gainditzeko asmotan daude kirolariak.

Izan ere, eta prestatuta berezirik izan ez bada ere, Barcelonara joateak lehiarako gogo apartak sortu ditu kirolariengan, Andoni Irigoien Nafarroako Herri Kirol Federazioko idazkariak azaldu duenez. «Prestaketa ez da berezia izan: aurtengo txapelketak —urte osoan zehar egindakoak—, eta jendea bere kabuz egin duena


izan da prestatuta. Gero, zenbait kontzentrazio egin dugu Amaiurren, berriro jendea motibatuzko, ez galtzeko txapelketaren ilusioa, eta kirolariak hobeki prestatuta daudela antzematen da, Barcelonara joateko daukaten ilusio hori dela eta». Gipuzkoa eta Bizkaia gailentzea, baina, benetan zaila izango da, eta hi-

rugarren postu hori izan beharko dute helburu nafarrek.

Beste urtetan bezala, sokatira izango da lehendabiziko postuak erabakiko dituen. Hain zuzen ere, modalitate honetan daude Nafarroako bi entrenatzaileak, Joxe Urrutia 640 kilotan, Amaiurko taldearekin, eta Joxe Iturzaeta pisu librean.



Nafarroako Herri Kirol selekzioa Doneztebeko aurkezpenean. ONDIKOL



Zenbait hondakin zakarretara botatzen dugunean, bizitza-ziklo berri bat hasteko aukera galtzen ari gara. Hondakin soliduak birziklatzeak, papera, beira, plastikoak, metalak eta abar aprobetxatzeko aukera ematen digu... beste berri batzuk egiteko. Material horiek besteetatik bereizten badituzu, lagundu egingo duzu errekurtsio naturalak hobeki erabiltzen, energia aurrezten eta ingurugiroa zaintzen.

Birziklatzea bizia ematea da

Barcelonara joango direnak

Aizkora: Donato Larretxea

Txingak: Patxi Larretxea

Harrian: Narciso Saralegi

Gurdia: Mikel Saralegi

Ingudea: Daniel Vicente

Lasto altxaketa: Eduardo Eugi

Trontza: Jose Mari Mujika eta Jose Mari Iriarte

Zakuak: Fernando Olague, Patxi

San Martin eta Seve Goya

Sokatira (640 kilotan): Amaiur

Sokatira (pisu librean): talde anitza





Ura, urre gardena

Espainiako Herrilan eta Hirigintza Ministeritzak (MOPU) jendarean ezagutzera eman du datoren 20 urteetarako Egitasmo Hidrologi-

koa. Arroiez arroi, uraren aprobetxamendurako egin beharreko lanak zehazten dira, eta Nafarroaren kasuan, hiru dira lanik garrantzitsuenak: Itoizko urtegia,

Nafarroako ubidea eta Esako urtegia handitzeko lanak. Funtsezko egitasmoa, uraren garrantzia gero eta gehiago azpimarratzen delarik mundu osoan.

Egitasmo Hidrologikoa Nafarroan

IZASKUN IBARRA / IRUÑEA

Espainiako Plangintza Hidrologikoa informazio publikoan dago ekainaren zortzitik. Besteak beste, hor agertzen da Ebro ibaiaren arroan berrogeiren bat urtegi egiteko asmoa dagoela hogei urteren buruan. Horien artean daude, hain zuzen, Nafarroan egiten diren bost urtegiak. Proiektu garrantzitsuenak Itoizkoa, horrekin loturik dagoen Nafarroako Ubidea, eta Esako urtegia handitzeko lanak dira. Arraitz, Oteitza eta Sarriako (Gares) urtegiak aurrikusi dituzte, baita Zaraitzu eta Erro-Urrobi ibaiak aprobetxatzea ere.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren egitasmoan esaten denaren arabera 19.000 hektarea ureztatu litezke elkarte foralean hamar urteko epean. Epe luzeago batean, kopuru hori 60.000 hektaretan handituko litzateke, 2012 urterako hain zuzen. Ureztapenak ezezik, hiri eta herrietako ur hornidura da plangintzaren beste helburua.


2015 urtean Nafarroak izanen dituen beharrak aztertzen dira plangintzaren atal batean. Bertan aipatzen denez, hiriek bikoiztu egiten dute kontsumoa (107 milioi metro kubikoak), industrian ere berdin gertatuko omen da (60 milioi) eta ureztapenean 1.640 milioi joanen direla esaten da.

Baina, esan bezala, hau plangintzaren zati txiki bat besterik ez da. Ustez Nafarroak ez du hainbeste urtegien beharrik. Itoiz eta Esako urtegia handitzea, aurrikusi diren proiektu garrantzitsuenak, Ebroko arroaren etorriak handitzeko erabiliko dira. Hau da, ur gehienak, Aragoi eta Katalunia aldera eramanez dira.

Horren lekuko dugu Madrileko Ministro Kontseiluak interes orokorreko proiektua izendatu duela Itoizko urtegia, Aragoi eta Kataluniako ubideekin batera. Itoizko koordinadorak honen berri eman zuen pasa den asteartean. «Nafarroako ubidea ez da aipatu ere egiten, eta Aragon konfederazioko presidentek esaten duenez ubidea da Itoiz justifikatzen duena».

EZTABAIDA FALTA PLANGINTZAREKIN

Dena den, plangintzak ez du sortu uraren inguruan espero zen eztabaida politiko eta soziala. Estatuko besteekin batera Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren egitasmoa ekainan jarri zuten informazio publikoan. Abuztua-




Bost urtegi egiteko asmoa dago Nafarroan 2.012 urterako. Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren proiektu handienak Agoitz inguruan kokatuko lirateke: Itoizko urtegia, bertan sortuko zen Nafarroako Ubidea deiturikoa eta Esa urtegiaren handitzea. Azken honek hirukoiztu egiten du bere kapacitatea. Hauetaz gain, 20 urteko epean Arraitz (16,5 hm³), Oteitza (54 hm³) eta Sarriako (18 hm³) urtegiak egiten dira plangintzak aurrera egiten badu. Halaber Zaraitzu eta Erro-Urrobi ibaiak aprobetxatzeko lanak martxan jarriko dituzte, baita Lokizko urdunarenak ere.

ren 8an bukatuko da alegazioak egiteko epea, eta kazetari honek ikusi ahal izan duenez, 7 pertsona besterik ez dira pasa erakundeak Iruñean dituen egoitzatik.

Ez alderdi politikoak ezta nafar gobernuak, ez dute beraien iritzia azaldu, nahiz eta Nafarroarentzat garrantzi handia daukan urtegi eta ibai mojdatzeko egitasmo honek. Iturri batzuen arabera, Legebiltzarrek agian, alegazioak aurkezteko epea luzatzea eskatuko du.

Edozeinek egin ditzazke alegazioak, exekutiboak, alderdi politikoak zein talde elkarte sozialak. Uraren Kontseiluak aztertuko ditu aurrenekoz, baina Ebroko Konfederazioak hartuko ditu erabakiak. Erakunde honek aurkeztuko duena Espainiako Herrilan Ministeritzari igorriko dio, eta hemen onartuko dira aurrera eramanez diren proiektuak.



Esako urtegia, Nafarroan dagoen handiena.

Ekologistak kritiko urtegien beharraren aurrean

A.B. / IRUÑEA

Espainiako Herrilan eta Hirigintza Ministeritzak (MOPU) onartutako egitasmo honen bidez, 200 bat urtegi eraikiko lirateke datoren urteetan, bi bilioi pezeta inguruko kostuarekin. Urte hauetarako aurrikuspenetan oinarrituta, datoren hobe urteetarako uraren gestio iraunkorra egitea du helburu, baina ekologisten kezak harrotu ditu dagoeneko, ingurugiroan eta sozialki izango duen eraginagatik.

Santiago Martin Barajas CO-DA koordinakunde ekologistako presidenteordeak, 'El País' egunkarian argitaratutako iritzi artikulu batean azaltzen duenez, urtegiak eraikitze politikak berrikusi egin beharko luke Gobernuak, duen kostuagatik, alde batetik, eta nekazaritzaren egungo egoera dela eta.

Bere ustetan, urtegiak eraikitzeak azken alternatiba izan beharko luke lehortei aurre egiteko eta biztanleen beharren igoerari konponbideak bilatu ahal izateko.

Nekazaritzarako erabiltzen den uraren portzentaia gora-beherak ditu zonen arabera, baina % 80tik gora dago toki askotan, baita Nafarroan ere. Hala ere, Europatik datozen irizpideak lur franko uztearen aldekoak dira, bere ordez zuhaitz birlandaketak eta beste iharduerak ezartzeko. Bestaldetik, gogoratu behar da MOPUn bertan erabilitako datuen arabera, urtegitik ateratzen den uraren % 50 inguru bidean galtzen dela, hodi eta horniketa sarearen egoera kaxkarra dela eta.

BEHARRAK BERRIKUSTEAREN ALDEKO

Halaber, ekologisten ustetan, eta urtegiak duten eragina soziala dela eta —herri, ekosistema, ondare historiko eta kulturalen hondamendia—, oso ongi berraztertutako beharko litzateke eraiki beharra. «Izan ere —dio Martin Barajasek— hortik etekinak aterako dituzten bakarrak urtegien lanen kontratazioa eskuratuko dituzten enpresak izango bait dira».

Bere ustetan, «konponbide zuzena» litzateke ureztatzeko dauden proiektu guztiak berrikustea, ekonomia, gizartea zein ekologiarren ikuspuntutik. Ondoren, behar horiek betetzeko lehendabiziko urratsa distribuzio sarearen hobetzea izango litzateke.



Ura, urre gardena

Uraren gestio zuzenarantz

ALBERTO BARANDIARAN

Gaur egun, munduko toki frankotan, ura ondare eskas eta arraroa da. Herri bakoitzaren kultura eta bizimodua urak baldintzatu egin du mendetan zehar, bizitzarako funtsezko elementua bait da.

Azken urteotan, populazioaren beharren igoera izugarriak, aldaketa klimatikoek eta ibai eta lur azpiko urtegien kutsadurak kezka larria sortu dute gobernu eta mundu osoko adituen artean. Ura inoiz baino preziatu eta baliagarriagoa da gaur egun, eta dauden erreserbak kontrolatu eta hobeki aprobetxatzeko ahaleginak gero eta ugariagoak dira.

Izan ere, ur falta nabarmena duten herriek, garapenerako arazo latzak dituzte, uztak mantxoago eta txarkiago ateratzen bait dira. Kontutan harturik garapenerako bidean dauden herrien jaiotze tasa handia, zailtasun hauek herriaren arazorik larriena izaten ohi dira.


Ur falta honen zergatiak antzizak dira, eta lehendabizikoak, klimatikoak. Gizakiaeren ihar-duerak ere zeresan handia dauka uraren eskasia aztertzerakoan. Lurraren erabilera okerrak hon-

datu dezake lurraren beraren impermeabilitatea, eta horrek izugarriko hondamendia izan daiteke, desertizazio handia sortzen bait du. Konponbideak, beraz, bi arloak hartu behar ditu kontutan.

Klimatologia kontrolatzeko saioak ugariak izan dira historian zehar, baina bereziki 50eko hamarkadatik aitzinean. Horretarako erabili den tekniketako baten bidez, hodeien barruan sustantzia batzuk sartzen dira, hegazkinen bidez. Oztopo tekniko guztiak gaintzen badira esperantzarako bide garrantzitsua izango da.

Uraren gestio zuzena ziurtatzeko, bestalde, erabilera kontrolatu beharra dago. Munduan kontsumitzen den uraren bi herenak nekazaritzarako dira, eta ingeniari genetikoak ur gutxiago behar duten landare eta uztak aztertzen ari dira. Industriek, uraren laurdena erabiltzen dute, eta kasu honetan ere konponbide bila ari dira teknikariak. Funtsean uraren birziklapena izango litzateke.

Populazioak erabiltzen duen ura ere hobeto aprobetxatzeko ahalegin ugariak izan dira, herri eta kulturen arteko kontsumoan aldaketa sakonak bait dira.



mintzoak

● Zortziak pasatuxeak ziren fatxadako erlojuak. Fatxada tristea, egia erran, utxikeriak tristatua. Aita-ama azolakabeak izaki, dui-kabe. Aski ikusgarriak egoten dituk, urte franko izanagatik, pixka bat zaintzen dituzten horiek, alajainkoa!

Baina semaforoa berdetu zen, eta ez nintzen fatxadari erreparatzen egoteko. Karretera gurutatu nuen. Zortzietan baitzen gure zita.

Ostatuan Lankratx esperoan nuen, eta eskumuturrera luzatu zituen begiak ni ikustean. 'Hiru minutu gibelu eta dagoeneko berantsiak? Zer duk hau, holkua!' Kafesnea. Zintzurra erretzeko balio izan zuen behinpen. Bezperako hondarrak kixkaltzeko, alegia. Eta kruasan bana.

Zerbitzariak gelditu gabe ari ziren fuego lanean. Ez zen han bezeroekin 'baietz Fuentek Merkxeri lau minutu kendu gaurkuan', ez 'zer duk Uatergeit hori?' Hotza, hango hartu-eman. Arrotz haiek guretzat, arrotz gu haientzat. Denek atorra xuria, txaleko eta galtza urdinak. Penagarri. Nagusi inorantearen gusto txarreko kapritxoak.

Bidean ez zidaten pixa egitera utziko eta, nola ez, komunera bisita. Plisti-plasta eta usaia. Batere harritu ez. Kontu horretan, altsota

maltsa dira-ta denak.

Mahaietan, gauaren tunela pasatua zutela oraindik ohartu gabeko dozena t'erdiren bat, aisa. Batekin kantatu egiten zuen, eta kantuen artean korrok. Lagunek txalo jotzen zioten.

Zortziak eta laurdenetan barrereko atea ideki genuen eta bertze gelara pasa. Kaiola femininoak esker-eskuin: La Bidasotarra, La Roncalesa, ... La Veloz Sangüesina. Haietako batean saldu ziguten biajea egiteko papera.

Sei-zazpi bat zutabe, baina espiarik ez haien atzean. Bazen mugimenta pixka bat, halere. Larunbat goiza. Nor ote zen ordu horretako txanda egitea suertatu zitzaion 'sekreta'. Zenbat 'txibato' ari ote ziren 'lanean', bixarrarekin eta gantzontziloak ere pegatuz josiak genituenoi begira ematen? Akaso, zurezko oholkaz eginiko bankuan zena, eskale gisa moztortua?... edo paretaren kontrako ile brillantea zuen harako hura?... eta haur guztiak izitu bidenabar, baba zeriola txupatusak saltzen zizkien aittonak ez al zuen irri estrainio xamarra?

Egunkaria erosi genion kanpoko ate ondoan aterperik gabe zegoen saltzaileari. Astelehenan, bueltatzen ginenean, Hojadelunes salduko zigun berari. Foto-matona ari zen norbait hil-

Estazioa

tzen, baina gu, zortziak eta hogeitabi baitziren, ez ginen okasio-gogo soberarekin, eta ez genion biktimari geure laguntzarik eskaini.

Jarri egin ginen, aulki luzean, autobusaren zai. Leku hura ere nahiko tristea iduritu zitzaigun. Zur, zemetu eta karea zen hangoa, baina burnia izatera dena herdoitua izanen zen dudarik gabe. Berrogei urtetan oilorik hartu gabeko makinaria bezalaxe zegoen dena: dekorazioa, paretak, mandatuak egiten zituzten morroiak, ... Kartelak ere, ez naiz garbi oroitzen, baina izanen zen mende hasierakoren bat ahantzia paretetan.

Nolanahi ere, gu ere hantxe ginen, eta gure gisako gehiago ere bai. Oraindik ere bolada baterako bizirik segitzeko eta sasoi ustez ederrean ginenak, erran nahi dut. A ze sasoi neskatxa haiena! Nora ote zihoan aztal gorriko trentzadun begibixi hura, ... nora bular beteko begilotsatia?

Begiak eta begiradak ebatsi nahian joan baitzitzaigun denbora. Aski abudo joan ere! Eta amets egiten: 'nongua zara, Lizarrakua?', jartzen ahal naiz zure ondun? ...

Baina Visi-ren bozak ernatu gintuen, guk nahi ez bagenuen ere. Goizean goiz hasi eta egun

osoan igual ariko zen hura, tikia baina haren indarra eta jenioa! 'Benga, sartu barrenera, azkenak xutik joan beharko dute! Mugitu, guztiak! Eh! usté, esos paquetes al maletero! No sabe o qué!'

Elkarren ondoan jarri ginen Lankratx eta biak. Ez aztal gorri ez bular beterik gure inguruan. Iguakal dituk ametsa eta errealtatea! Edozein moduz, aste osoa herri haunditik herri tikira joateak ere bazuen ametsetik zerbait. Eta horrekin konforme. Estudiante multxo koxkor bat, bi soldado, bi moja, semar-emazte batzuk bi neraberekin, Visi eta txoferra. Horra egun hartako espedizioa. Lankratxek utzi zidan komiki berri bat hartu nuen eskutan.

Marrazkilariak etorkizuneko hiri batean gertatzen zen tirabira kontatzen zuen. Ekolojiaren ize-nean ari ziren gazte (adin eta bihotzez) batzuek udalaren ordezkari zen alkate diktadorearen kontra. Alkateak etxe 'zahar' guztiak bota nahi zituen, eta etxe berri hotz erraldoiez, errepede berri, aparkalekuz... bete hiria.

Lau-bortz-sei hilabete iraun zuen borrokaren ondotik, ekologista talde bat sartu zen zutik gelditzen zen azken etxe historikoan: autobusen geltoki xaharrean. Ateratzeko eta ez atera nahi, udaltzainak indarka eta ez

atera bertzeak, Estatuko polizia bereziak eginahalak egiten eta ezin atera barrenean zirenak. Hondarreko, alkateak inork sintetsi nahi ez zuen erabaki zakarra hartu zuen: 'etxea bota egingen dugu dinamitaz, eta ez badute atera nahi, haiek ere infernura joanen dira etxe zahar horren harri eta zuren artean'.

Marrazkilariak ez zuen ekolojizendako ihespiderik asmatu, eta azken laukitxoan leherketa haundi horiek uzten dituzten ondo itxurako ke-hodei ikaragarri horietako bat marraztu zuen. Hori ikusten ari nintzen momentu berean, zerbaitek eztanda egin balu bezalako soinu haundi bat aditu nuen. Fikzioak eta errealtateak bat egin ote zuten pasa zitzaidan burutik. Zutitu nintzen eta giberura begiratu nuen. Iruñea oraindik ageri zen. Baina, ez, deus bereziren seinalerik ez, ordea. Marrazkilariaren gogozioa bertzerik ez. Jarrinintzen berriz. Atarrabiako errebueltan ginen. Hurrengo herria, Arre. Ni so: begiak itxi eta lo egiteko prestatu nintzen.



Gazteendako Zokoa

Uhalde Enara

Riparia riparia
Intsektu hegalariai harrapatzen ditu
Kabia tunel batean egiten du
Mundu guztian zehar sakabanaturik



Amodioa harresi eta burdinsareen artean

Hegalari azkarra

Enara arruntak baino txikiagoak (12 zentimetro luzera), txori hauek nabarrak dira goikaldean, azpialdea txuria dutela, lepazpian marra nabar batekin. Isatsa motza dute eta beste enaren antzera, mokua eta hankak oso txikiak, marroiak. Oso azkarra da hegan egiterakoan eta aidean maniobra asko egiten ditu. Gutxitan geratzen da kable eta zuhaitzen adarretan geldirik.

Kabiak egiteko duen berezitasunak ematen dio txori honi duen izena, metro erdiko tunela egiten bait du harea edo lurreko ezpondetan. Tunelaren barruan kabia egiten du, luma eta belar txikiak. Normalean ibaien ondoan bizi dira, zelaietan eta haranetan, eta ehiza egiterakoan baratz eta soroetara hurbiltzen dira. Intsektu hegalariai harrapatzen ditu, hegan egiten duen bitartean, aho handia bait du. Beti edo ia beti taldeka bizi da, koloniak osatuz. Mundu guztian ikus daiteke, oso zabaldurik dagoelako. Udaberri eta uda Europan pasatzen dute eta neguan Afrikarantz jotzen dute.

GOIZEDER CASTELLANO

Zure azken eskutitza eskuartean hartuta maitasunez destolestu nuen, berriz ere irakurri nuen, ez nintzen inoiz nekatzen zure hitz apal, goxo eta lirainak irakurtzeaz. Bidaltzen zenizkidan aurrera jarraitzeko animoek, nere bihotza indarrez betetzen zituzten. Musika lasaiaren artean zure aurpegi goxoa gogoratzen nuen.

Afaldu eta gero boltsoa prestatu edukita kalera irten nintzen autobus geltokira joateko asmoz. Ibiltzen nihoan bitartean irribarra ezpainetan nuen; denbora luzea zen zure aurpegia ikusi gabe, hala ere, tristura bihotzean nuenean, zu han zeunden, txori bat kaiola batean bezala zintuztelako.

Autobus geltokian Mirenekin topatu nintzen, hura ere anaia Aitor ikustera zihoan. Autobusa garaiz iritsi zen. Martxan jarrita,

neguaren hotza eta autobusak zerraman berogailuarekin batera jadanik Nafarroa zeharkatuta genuen. Lo gelditu nintzen, amets goxoen artean: gu biok li-

Azkenean iritsi ginen. Lurralde makal, zabal baten erdian harresi eta burdinsareez osaturiko espetxe hura zegoen, horrenbeste aldiz ikusia nuen kaiola hura. Hara nihoan bakoitzean ikara sentitzen nuen.

bre ginen, dantzan genbiltzan zelai berde eta loretsu batean. Bidaia luzea zen, baina zu ikusteko itxaropena bihotza pozez bete-

tzen zidan. Orduak luzeak ziren...

Azkenean iritsi ginen, lurralde makal, zabal baten erdian harresi eta burdinsareez osaturiko espetxe hura zegoen, horrenbeste aldiz ikusia nuen kaiola hura. Hara nihoan bakoitzean ikara sentitzen nuen.

Denbora labur bat itxaron ondoren, han ikusi zintudan, irribarre goxo batekin ezpainetan eta suaz piztuta zeuden bi begi adierazkorrekin.

Hizketan hasi ginen, bere eskua hartu nahi nuen baina kristal lodi bat bereizten gintuen. Elkarriketa oso laburra izan zen, baina goxoa. Berriz ere, beren legeak inposatu zituzten gu bereizteko.

Mila pentsamendu buruan ni-tuelarik, berriz autobusera igo eta amets egiteko gogoak izan nituen: gu biok libre ginela eta dantzan genbilela zelai berde eta loratsu batean...



BASAJAUN

Kutsadurarekin bueltaka, kotxeek zerikusi handia dute arazo honetan, hauek bait dira, izan ere, kutsadura handien sortzen dutenak.

CO2 eta beruna atmosferara zuzen-zuzen hurbiltzen dira koteetatik sortutako kea dela eta. Beruna oso kaltegarria da giza-kiaren osasunerako, eta EEBBetan, kasu, debekatuta dago errekintan erabiltzea.

Estatu askotan, berunik gabe ko gasolinaren aldeko kanpaina asko antolatu dira, eta neurri egoikiak hartu ziren duela urte batzuk. Gure herrian eta penintsula osoan, ordea, Campsak eta errekin ekoizleek ez dituzte hartu beharrezkoak diren neurri hauek.

Gasolina berezi honen prezioa merketu beharra dago, ekonomikoki arazo izan ez dadin, eta bere kontsumoa bultzatzeko. Aurre-erapena, orain ere, zure esku dago. Galde ezazu ea zure kotxea gasolina hau erabiltzeko prestatuta dagoen, eta horrela bada, bada-kizu, ohitura aldaketa baino ez da izango.

EEBBetako ikerketa batek dioenez, odolean aurkitutako berun kopurua % 37an gutxitu zen neurri hauei esker. Haur txikiak dira arrisku handiena jasaten dutenak, jolasean, askotan, lurrean dagoen beruna ikutu eta irentsi egiten bait dute.

Halaber, txori eta arraintzat ere oso kaltegarria da. Neurriak har ditagun, bada, eta Euskal Herria garbitu. Hauxe izan dadila aste honetako artikularen lema.

Basajaunek agurtzen zaituzte besterik gabe, Leitzarandik zuzenetik bidalitako kronikan. Hurrengora arte, agur.

KAZKARROAN

Jenero Xumekoak

Arkupetan barna

Bapateko erretratoak egiten dituen artistak, arkupen barna zihoan apaiz batekin topo egin du, zein bere bihotzeko putzu ttipian jaungoikoaren animalezko itsasotasuna nola sar ote zitekeen pentsatzen ari bait zen. Erretrato bat egiteagatik zenbat pagatu behar zen eztabaidatu ondoren, ez dira ados jarri, eta artistak bere burua kontsolatzen du halako animalezko sudurra ez duela sartu behar bere oihal ttipian pentsatuta, eta kaleetako soraluzean ama birginak pintatzen zituen garaiko egunak gogoratuz, udako hortotsek bere pintzel lanak istant batez garbitu ohi zituztelarik.

JUANTXO URDIROZ

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER-ESKUIN: 1.- Bihia. Abila. 2.- Mintzaira. 3.- Talde. Bururatz. 4.- Akitu aditzaren infinitibo. Kalaka. 5.- Lehenengo. Infusio mota. Bokala. 6.- Iparraldean, ardoa. Bi aldiz adierazten duen aurrizkia. 7.- Interjekzioa. Jokatzeko kartetako bat. 8.- Udak kontseiluko batzarkide. 9.- Kasik (bi hitz). Garrak.

GOITIK-BEHERA: 1.- Aurpegiko irekidura. Arazo. 2.- Liskarrak maite dituen. 3.- Gozo. Irisaren irekidura. 4.- Alderantziz, alderdi karlista. Marra jokoa. 5.- Uranioaren sinbolo kimikoa. Suari dariona. Kontsonantea. 6.- Nolabait. Diru. 7.- Haur hizkeran, aita. Hauteskundeetan eman ohi duguna. 8.- Ausarta. 9.- Alderantziz, gari sorta. Toka, zaizu.

Zaharrak berri

Ero, baino bero.
Eroztat hartzen bazaituzte ere, ez ajola horregatik, ongi baldin bazabiltza.

Larraun

Nolako maixtarra, halako baztarra.
Nolako langilea, halako baratzta.

Beuntza

—Nik zure aurpegia beste lekuren batetan ikusi dut.
—Ba, harritzekoa da. Nik burua beti leku berean eramaten dut.

Bizi Bizian

Kima Kultur Zerbitzuak marrazki bizidunak euskaraz egiteko prozesuari buruz tailer didaktikoa antolatu du udarako Iruñean. Mota honetako arloan aitzindaria, umek, marrazki bizidunen inguruko gorabeherak ezagutzeaz gain, euren istorioa ere egiteko parada izango dute, eskura dagoen tresneria guztia erabiliz. Kimak arrakasta handia izan du Euskal Herria osoan zehar.



Marrazki bizidunak, haurren eskura

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Kima taldeak urte franko darama marrazki bizidunak eta grafismoaren munduan buru-belarri sartuta, baina Euskal Herrian zehar ezaguna egin duen tailerra eta erakusketen historia 1985ean hasi zen 'Pitxu, alfer handia' izeneko laburmetraia estrenatu zuenean, bi urteko lanaren ondotik. 'Pitxu', Zuberoako maskaradetatik ateratako pertsonaiak, berehalako arrakasta izan zuen, eta Euskal Telebistan eta Antenne 2 telebista kateetan emititu zuten. Izan ere, filmearen muntaia eta produkzioa Hendaian eta Parisen egin zen, eta laguntza instituzional ugari jaso zuen, tartean Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Diputazioa, Frantziako Centre National de la Cinematographie eta Antenne 2 telebista katearena.

Orain, eta laburmetraia honen inguruan sortu zen erakusketaren ondotik, 6 eta 10 urte bitarteko haurren tailerra euskaraz antolatu dute Iruñean. Tailer honetan haurrak ez dira marrazki bizidunen ikusle soilak, baizik eta beraiek, monitoreen laguntzaz, marrazki biziduna egin ahal izango dute.

Lehendabiziz, haurrek ezagutuko dute marrazki bizidunak egiteko prozesu osoa, gidoia burutzetik filmazioraino, pertsonaiak ahaztu gabe. Eta guzti hau ez bakarrik teoriarik, praktikan ere bai. Horretarako, eta plastilina erabiliz, laburmetraia sinple bat egingo dute haurrek, eta ondoren beraiek burutuko dituzte gidotxoak, eszenatokia, pertsonaiak, eta beraiek sartuko dituzte abotsak, soinua bereziak eta abar. Az-



Tailerrean tresneria guztia beren eskura izango dute haurrek.

kenean, beraiek filmatu egingo dute.

Azken emaitza, lan ihardueraren une interesgarriekin batera, hoge minutuko bideo batean bilduko da. Bideo hau gurasoei emango zaie ikastaroa behin amaituta. Honetaz gain, ume guztiak ordenagailua erabili ahal izango dute, marrazkiak egiteko, haien argazkiei ikutu bereziak emateko, eta nahi duten guztietarako. Halaber, euskaraz-



ko filmeak ikusiko dituzte, batere zentzu biolento edo sexistarik gabekoak. Ikastaroak uztailean eta abuztuan egingo dira, hamabost haurren taldetan. Prezioa hamabost mila pezetakoa izango da. Kima taldea

hamar bat lagunek osatzen dute gaur egun, eta marrazki bizidunak ezezik, publizitatean, karteletan eta abarretan ere egiten dute lan. «Grafismoarekin zerikusia duen guztian», José Alberdik

JOXE LACALLE

azaldu duenez.

Esan bezala, hasiera 'Pitxuren' filmearekin izan zen, eta ondoren, kontutan hartuz laburmetraian pilotzen ziren marrazkien interesa, erakusketara osatu zuen Kima taldeak, Euskal Herria osoa eta beste alde franko —Valencia, Madril, Kanbo, Pabe, Anglet— zeharkatu duena. Bertan, filmearen inguruko prozesu eta ezaugarri guztiak azaltzen dira, eta bereziki gazteei zuzenduta badago ere, helduei ere eskein-



tzen zaie mundu berezi honetan murgiltzeko aukera.

Hiru zatitan banatzen da erakusketak hau. Lehendabizikoan, erakusketen bidez, marrazki bizidunak egiteko prozesu osoa azaltzen da. Monitor baten laguntzaz, urrats oro azaltzen dira argi eta garbi, ideia hutsetatik produktu osatu batera heltzeko prozesua bere osotasunean ulertzeko.

Bigarren zatian marrazkiak egiteko erabili diren material eta tresna guztien ezaugarriak azaltzen dira, eta bereziki ordenagailuarena, bertan lan egiteko daukan erreztasun dela eta. Hirugarren zatian, 'Pitxu' filmea ikus daiteke.

Erakusketak hau, eta uda honetarako prestatu duten ikastaroa, lehendabizikoak eta aitzindariak dira Euskal Herrian, eta izugarriko arrakasta izan du bisitatu dituen toki guztietan, bereziki bere interes didaktiko eta kulturala dela eta.

Istorioak gauzatzeko modu aproposa eta didaktikoa

P.U. / IRUÑEA


«Umeek istorio pila dute buruan, eta zailena da iturri hori zuzentzea, nahi duzun tokitik eramatea, ondoren zerbaitetan gauzatzeko». José Alberdik azaldu duenez, esperientzia oso erreza egiten zaie umeei, eta ordenagailuak eta tresna elektronikoen erabilera ere ez die aparteko arazorik sortzen. «Ordenagailu hauek oso errez erabiltzen dira, bakarrik zenbait mugimendu egiten bait dira, lau aginteren bidez». Bertan dagoen tresneriaren artean magnetoskopiak, escanerrak, proiektoreak, bozgai-luak, panelak eta abar aurki daitezke.

Tailer horietan haurrek marrazkia egiteko prozesu osoa

ikasten dute, eta esperientziak haurren hezkuntzaren hiru arlo jorratu eta lantzen ditu bereziki: plastika, lan taldea, eta euskara bera.

Marrazki bizidunak egitekoan, haur guztiengan telebistak duen eraginari aplikazio praktikoak ematen zaio, beren buruan dauden istorioei bizitzaren erosten zaielako. Horrela, telebistan egunero ikusten dutena azaltzen saiatzen dira tailerrean, eta sormena lantzen da.

Halaber, eta nahiz eta historia umeren baten buruan egon, azken emaitza denon artekoa bait da. Izan ere, marrazki biziduna egiteko prozesua oso banatuta bait dago. «Horrela —azaldu du Alberdik— talde lanaren garrantziaz ohartzen dira umeak».



Jabier Irazoki

poeta

«Isiltasunera hurbiltzen ari naiz»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— Duela denbora franko zazpi urte eman zenituen zure Lesakako baserriatik ia irten gabe. Momentu horretan hasi zinen poemagintzan. Baserritar eta poeta lanbideak ez al dira nahiko kontrajarriak?

JABIER IRAZOKI.— Nik uste dut baserrian egoteak laguntzen duela. Hemen badago magia bat, eta bakarrik behar duzu begirada ongi, baina hori hemen eta baita hirian ere. Ni egondu naiz Indian orain dela gutxi, eta itzultzean konturatu naiz zeinen gaizki dugun begirada.

Begiratu duzu nola doaien jendea kalean barna eta aurpegian ikusten duzu hustasuna.

Hirian, eta batez ere hemen naturaren ondoan, badago magia bat. Ni hemen jaio naiz, eta nahiz eta gero liburuak irakurri, eta irakurri, eta irakurri, beti nuen nere eskuen ondoan magia hori, —eta ez dakit nork lagundu zidan—: begirada irekia. Nik uste naturak beti laguntzen duela aberastasun bat lortzeko.

EGUNKARIA.— Behin eta berriz aipatzen duzu baserria eta hiria. Zuretzat zein da poemak egiteko horietako egokiena?

IRAZOKI.— Barrenean diren hiriak, eta barrenean diren naturak. Barrendik sortzen diren gauzak.

EGUNKARIA.— Hiri handiak ederki ezagutzen omen dituzu,

Madriren urte batzuk eman bait zenituen lanean. Nola moldatzen da poeta euskaldun bat Madriren?

IRAZOKI.— Bai, orain dela urte pilo bat Madriren izan nintzen, eta han egondu nintzen kazetari lana egiten, musikari buruz eta hola idazten. Gainera ni joan nintzen Madrilera jakinez zerbait oso bitxia egin behar nuela han ametzeko ni. Eta egiten nituen artikulua literatura eta musikari buruz, pixka bat nahasita. Hor egon nintzen lanean Jose Maria Iñigorekin. Han zituen aldizkari batzuk, eta gero hasi zen telebistan lanean. Ni lanik gabe geratu nintzen eta itzuli nintzen herrira.

Abentura polita izan zen.

EGUNKARIA.—

Duela gutxi argitaratu duzun 'Zeru segaz jotakoak' poema liburuak zuk orain arte idatzitako obra guztiak biltzen ditu. Badi-rudi hasiera batean nahiko gogorak zirela zure poemak, eta aldi berean edertasuna bilatzen zutela, alderdi estetiko asko zaintzen zenuela. Denbora

pasa ahala, leundu egin dira zure poemak. Gogortasun hori galdu dute, eta idazterakoan egia bilatzen duzula ematen du, alderdi etikoa gehiago hartzen duzula kontutan. Zer izan da garapen horren eragilea?

IRAZOKI.— Ciuran filosofoak zera erran zuen behin: «Poeta hitzun aparta da». Nik uste dut aunitzetan egia dela. Hemengo bizitzeko modua da. Arestian

Baserritarra jaiotzez, ondo ezagutzen du Jabier Irazokik hiri handietako bizitza. Baserrian poemak idazten hasi ondoren, Madrilera joan eta hantxe ibili zen lanean. Azkenean, berriz ere bere baserrira itzuli zen eta egun, Iruñean

ematen du negua eta Lesakan uda. Urteak pasa ahala leundu egin dira bere poemak, eta egun idazterakoan isiltasunera hurbiltzen ari dela dio. Joan den larunbatean 'Zeru segaz jotakoak' poema liburu aurkeztu zuen Iruñean.



JOXE LACALLE

erratan nuena Indian. Guk ez dakigu geldirik egoten, eta ez dakigu isiltasuna elikadura bat dela. Nik gero eta hitz gutxiago erabiltzen ditut, isiltasunera hurbiltzen naiz gero eta gehiago.

Lehendabiziko aldi, nere poemetan agertzen da gogortasun bat, heriotza ezin ametzituz. Gero ere edertasun hori, liburutan agertzen den edertasuna, pertsonekin azaltzen den edertasuna. Azken bolada honetan etikora gehiago hurbiltzen ari naiz, isiltasuna ere antzematen da. Indian,

tzean. Pozik zaude Patziku Perurenaren euskaratzearekin?

IRAZOKI.— Nik uste Patziku dela hoberena lan hoiek egiteko. Berak ezagutzen du euskara inork baino hobekiago. Euskaraz beste poema batzuk dira. Ezin duzu gauza bera paratu beste hizkuntza batean. Dena den Patzikuk lan

Ari gara beti hitzak zorabiatzen, eta gainera oihuka. Bertze manera bat da pertsonak betetzeko eta zu zerorri betetzeko, eta maiz ez duzu hitzik erabili beharrikan.

harrigarria egin du.

EGUNKARIA.— Gai honi eutsiz, ezinbestekoa da galdetzea lan hori zuk zeuk zergatik ez duzun euskaratu.

IRAZOKI.— Hizkuntzak menperatzea inoiz bukatzen ez den lana da, eta nik beldurra nuen. Patzikuk hobeto menperatzen du euskara nik baino, eta esan bezala niri beldurra ematen zidan.

EGUNKARIA.— Dena den, euskaraz zer edo zer idazteko asmoa ba omen duzu.

IRAZOKI.— Badut zerbait egin da, hasia naiz pixka bat. Hala ere, badaukat beldur bat, ea ez ote duan gramatika gehiegi kontutan hartuko. Nire euskara basatia da, eta akademiari begira idazteko beldurra daukat. Ea zer pasatzen den, ni saiatuko naiz eta denborak erran beharko du zer sortzen den.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERDA

